



HIZKUNTZA INKLUSIBOA ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK IDATZIZKOAN ETA AHOZKOAN OSALAN-LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEAN / PAUTAS PARA UN USO INCLUSIVO DEL LENGUAJE ESCRITO Y ORAL EN OSALAN- INSTITUTO VASCO DE SEGURIDAD Y SALUD LABORALES



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de
Seguridad y Salud Laborales

Euskadi, auzolana, bien común



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la Biblioteca General del Gobierno Vasco:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

A catalogue record of this book is available in the catalogue of the Central Library of the Basque Government:
<https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Izenburua / Título: Hizkuntza inklusiboa erabiltzeko jarraibideak idatzizkoan eta ahozkoan OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundean / Pautas para un uso inclusivo del lenguaje escrito y oral en OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

Argitaraldia / Edición: 1.a, 2023ko azaroa/ 1.ª edición, noviembre de 2023.

Ale-Kopurua / Tirada: 600 ale / 600 ejemplares.

Egileak/ Autoría: Raposo Acevedo, Raquel (OSALAN), Madariaga Arrieta, Deikun (OSALAN).

© Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa / Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea / OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.

Argitaratzailea / Edita: OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales / Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Dinamita Bidea z.g. / Camino de la Dinamita s/n 48903 Barakaldo (Bizkaia).

Internet: www.osalan.euskadi.eus

Fotokonposizioa eta inprimaketa /

Fotocomposición e impresión: Fotocomposición IPAR, S.Coop.
Zurbaran Kalea 2-4, behe. 48007 Bilbao (Bizkaia).

Lege-gordailua / Depósito Legal: LG BI 1513-2023

AGURRA

Hizkuntza funtsezko dugu gizakiok: gure bizitzan, gizartean, enpresan. Gizakion pentsatzeko eta jarduteko modua islatzen du.

Horregatik, apustu sendoa egiten du Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailari atxikitako OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak gure erakundeko langileok berdintasunaren beharraz jabe gaitezen eta, bide batez, administraziokoak, bai eta enpresak eta haien langileak ere.

2019an aurkeztu genuen proposamen hau, baina beharrezkotzat jo dugu eguneratzeaz batera, euskararen erabilera inklusiboa egiteko jarraibideak ere jasotzea. Espero dugu, zinez, baliagarria izango dela kontzientziatzeko hitzei zer-nolako erabilera ematen diegun eta, beharrezkoa denetan, aldatuz joan gaitezen.

Barakaldon, 2023ko ekainaren 29an

Lourdes Iscar Reina

OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusia

SALUDO

El lenguaje es parte fundamental de las personas, de la vida, de la cultura, de la sociedad, de las empresas. Refleja su forma de pensar y de actuar.

Por ello, desde OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales, dependiente del Departamento de Trabajo y Empleo del Gobierno Vasco, tenemos una apuesta decidida por tomar conciencia de la necesidad de igualdad entre las trabajadoras y los trabajadores de nuestra propia organización y por ende de la administración y también de las empresas y sus trabajadoras y trabajadores.

Ya en 2019 se presentó esta propuesta, pero hemos considerado necesaria su actualización y la inclusión también del euskera. Por ello esperamos que resulte de utilidad para que tomemos conciencia del uso que les damos a las palabras y de modificarlas si es necesario.

En Barakaldo a 29 de junio de 2023

Lourdes Iscar Reina

Directora General de OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales.



SARRERA

Xede dugu Osalanen hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea. Horrek, araudia betetzeaz gain, berarekin dakar aitortzea eta ikusaraztea laneko segurtasunean eta osasunean hainbat errealitate daudela emakume zein gizonen artean.

Horregatik uste dugu emakumeak eta gizonak aipatzea lagungarria dela, batetik, erantzuteko haien artean egon daitezkeen desberdintasunei, eta, bestetik, hobetzeko guztion laneko segurtasunaren eta osasunaren prebentzioa zein babesa.

Gizartea aldatuz joan den heinean, legeriak hainbat proposamen eta betebeharrak jasotzen ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez. Eta, hain zuzen ere, hizkuntza nola darabilgun dugu desberdintasun horren isla argia. Hori dela eta, legegintza-corpus horrek, besteak beste, helburu du darabilgun hizkuntzaz kontzientzia hartzea eta aldatzea.

Emakumeen eta gizonen berdintasun eragin-garrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak (BOE, 71. zk., 2007ko martxoaren 23koa) jasota du kontu hau hainbat artikuluetan: 14., 28., 37. eta 38. artikuluetan)

Eta Euskadin martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen

INTRODUCCIÓN

En Osalan nos comprometemos a hacer un uso no sexista del lenguaje porque hacerlo así supone, además de cumplir con la normativa, reconocer y visibilizar la existencia de las diferentes realidades de mujeres y hombres en la seguridad y salud laborales.

Por eso, consideramos que nombrar a mujeres y hombres contribuye a atender las posibles diferencias de unas y otros y a mejorar la prevención y protección de la seguridad y la salud laborales de todas las personas.

En la medida en que la sociedad se va transformando, la legislación ha recogido diversas propuestas y obligaciones respecto a la igualdad entre hombres y mujeres. Y precisamente el modo en que utilizamos el lenguaje es reflejo de esa desigualdad. De ahí que ese corpus legislativo tienda a realizar una modificación y concienciación sobre el mismo.

Legislación como la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres. (BOE n.º 71, de 23 de marzo de 2007) que lo establecía ya en los artículos 14, 28, 37 y 38.

Y en Euskadi el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machis-

testu bategina onartzen duenak (2023ko martxoaren 27ko EHAA, 60. zk.) eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aldatzen duenak, berretsi egiten du hizkuntza eta irudiak modu ez-sexistan erabiltzeko legezko betebeharra 194 artikuluan: **Euskal botere publikoek hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabili behar dute irudi eta hizkera mota guztietan, zuzenean eta beste pertsona edo entitate batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan**). Artikulu horrez gainera, hauetan ere aipatzen da: 29.3, 33.2, 36.2. eta 46.2 artikulak.

2019an, OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundean, gomendio batzuk egin genituen hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiteko. Gaztelaniaren erabileraren gainekoak izan ziren, helburu hartuta saihestea maskulinoa generiko gisa erabiltzea.

Gomendio horiek eguneratuta dakarzkizuegu oraingoan, eta, horrez gain, euskararen erabilerari buruzko gomendioak.

Gaztelaniaren erabileraren ingurukoak gaztelaniaz idatzita dituzue, eta euskararen erabileraren gainekoak euskaraz.

Gainera, bi hizkuntzetan komunak diren batzuk ere gehitu ditugu, hizkuntzaren erabilera ez ezik, mezuaren edukia bera eta irudien erabilera ere jorratzen dituztenak. Gomendio horiek euskaraz eta gaztelaniaz dituzue.

Egileak

ta contra las Mujeres. (BOPV n.º 60, de 27 de marzo de 2023), que modifica la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, ratifica la obligación legal de hacer un uso no sexista del lenguaje y de las imágenes en el Art. 194. **Los poderes públicos vascos deben hacer un uso inclusivo y no sexista de todo tipo de lenguaje e imágenes en los documentos y soportes que produzcan directamente o a través de terceras personas o entidades**, además de en los artículos Art. 29.3, 33.2, 36.2. y 46.2.

En 2019, en OSALAN-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales, elaboramos unas recomendaciones para hacer un uso no sexista del lenguaje. Se referían al castellano, porque en la mayor parte de los ejemplos, se pretendía evitar el uso del masculino como genérico.

Hemos actualizado dichas recomendaciones y, además, hemos incorporado recomendaciones relativas al uso del euskera.

De tal modo que encontrarás las recomendaciones de castellano en castellano y las de euskera en euskera.

Hemos añadido, además, algunas que son comunes para ambas lenguas ya que tratan no sólo del uso del lenguaje, sino del contenido mismo del mensaje y del uso de las imágenes. Estas recomendaciones están por ello tanto en euskera como en castellano.

Las autoras



PAUTAS PARA EVITAR EL USO DEL MASCULINO COMO GENÉRICO

1. Usar genéricos reales y nombres abstractos:

Personas, gente, ser humano, alumnado, asesoría, tutoría, dirección, jefatura, titulación, licenciatura, abogacía, ciudadanía, judicatura, empresariado, personal...

2. Usar las dobles formas cuando sea necesario:

Mujeres y hombres, trabajadoras y trabajadores, las y los representantes...

3. Usar formas impersonales de los verbos y pronombres:

Cuando **UN TRABAJADOR** se pone un EPI → Al **PONERSE** un EPI, cuando **TE PONES** un EPI
LOS QUE trabajan aquí saben... → **QUIENES** trabajan aquí saben...

4. Combinar todas las alternativas anteriores.
5. Poner los cargos y profesiones en femenino cuando se refieren a mujeres.
6. Usar las barras sólo en cuestionarios o gráficos que no permitan otros recursos por falta de espacio. Evitar arrobas y otros signos no lingüísticos en los textos administrativos.

ALTERNATIVAS A LOS TÉRMINOS MÁS USADOS EN OSALAN

TÉRMINO	ALTERNATIVAS ¹
Trabajadores	• Personas trabajadoras • Las y los trabajadores / los y las trabajadoras • Las trabajadoras y trabajadores / los trabajadores y trabajadoras. • Quienes trabajan en la empresa • La plantilla • El personal de la empresa • El equipo humano • Población trabajadora
Delegados de Prevención	• Delegados y delegadas de Prevención / Delegadas y delegados de Prevención
Trabajador designado	• Trabajadora o trabajador designado • Persona trabajadora designada
Empresario	• Empresaria o empresario / empresario o empresaria • Empresariado • La empresa
Los representantes	• Personas representantes • Las y los representantes / los y las representantes • Quienes representan
Técnicos de Osalan	• Personal técnico • Técnicas y técnicos / técnicos y técnicas
Médicos	• Personal médico • Médicas y médicos / Médicos y médicas • Personal sanitario
Enfermeras	• Personal de enfermería • Enfermeras y enfermeros / Enfermeros y enfermeras • Personal sanitario
Administrativos	• Administrativos y administrativas / Administrativas y administrativos • Personal de Administración
Asesores	• Asesoría • Asesores y asesoras / asesoras y asesores
Gestores	• Gestoría • Gestores y gestoras / gestoras y gestores
Empleados	• Personas empleadas • Personal empleado • Empleados y empleadas / empleadas y empleados
Inspectores de trabajo	• Inspección de Trabajo • Personal de Inspección • Inspectoras e inspectores de Trabajo / inspectores e inspectoras de Trabajo
Accidentado	• Persona accidentada • Quien ha sufrido el accidente • Accidentado o accidentada / accidentada o accidentado

¹ No todas las alternativas son siempre intercambiables, depende del contexto.



TÉRMINO	ALTERNATIVAS ¹
Usuario	• Personas usuarias • Usuarías y usuarios / usuarios y usuarias
Cliente	• Clientela • Cliente y clienta / clienta o cliente
Fabricante	• Empresa fabricante
Operario	• Persona operaria • Operario u operaria / operaria u operaria
Conductor	• Quien conduce • Persona conductora • Conductor o conductora / conductora o conductor
Jefe	• Jefe o jefa / jefa o jefe • Jefatura
Conserje	• La o el conserje • La conserje
Facultativos de Osakidetza/ Facultativos de los Servicios de Prevención (SSPP)	• Personal facultativo de Osakidetza / Personal facultativo de los Servicios de Prevención (SSPP)
Promotor	• Persona o entidad promotora • Quien promueve • Promotora o promotor / promotor o promotora
Director	• Dirección • Director o directora / Directora o director
Coordinador	• Coordinación • Coordinadora o coordinador / coordinador o coordinadora
Encargado	• Persona encargada • Encargada o encargado / encargado o encargada • Quien se encarga
Oficial	• La o el oficial
Peón	• Peón o peona
Maquinista	• El o la maquinista
Albañil	• La o el albañil
Fontanero	• Fontanero / fontanera
Pintor	• Pintor / pintora
Carpintero	• Carpintero / carpintera
Encofrador	• Encofrador / encofradora
Ferrallista	• El o la ferrallista

ALGUNOS EJEMPLOS PRÁCTICOS

Lenguaje utilizado hasta el momento	Alternativa de lenguaje más inclusiva
¿Quién es el Delegado de Prevención?	¿Quién es la persona Delegada de Prevención?
¿Puede ser la misma persona Delegado de Prevención y trabajador designado ?	¿Puede ser la misma persona Delegada de Prevención y trabajadora designada ?
¿Quién puede acompañar a los inspectores de trabajo y a los técnicos de Osalan si viene a mi empresa?	¿Quién puede acompañar a la Inspección de trabajo y al personal técnico de Osalan si viene a mi empresa?
En las empresas de menos de 6 trabajadores podrán elegir entre ellos al representante en materia de prevención de riesgos laborales.	En las empresas de menos de 6 personas podrán elegir entre ellas a la representante en materia de prevención de riesgos laborales.
Los Delegados de Prevención serán designados por y entre los representantes de personal en el ámbito de los órganos de representación.	La designación de Delegados o delegadas de prevención se realizará por y entre las personas representantes del personal en el ámbito de los órganos de representación
El maquinista, siempre que vaya a realizar una maniobra con la máquina, se asegurará de que no haya trabajador alguno en su entorno.	Quien conduce , siempre que vaya a realizar una maniobra con la máquina, se asegurará de que no haya nadie / ninguna persona en su entorno.
El trabajador llamará la atención del maquinista para acercarse a la zona de trabajo y no pasará por detrás de las máquinas en movimiento.	Para acercarse a la zona de trabajo, se llamará la atención de quien maneja la máquina y no se pasará por detrás de las máquinas en movimiento.



EUSKARAREN ERABILERA INKLUSIBOA EGITEKO JARRAIBIDEAK

1. Gogoratu gaztelaniaz generikoak erabiltzea aholkatzen dutela, baina euskarak ez duela horrelakorik behar; beraz, kontuan hartu:

Alumnado, asesoría, dirección, licenciatura, abogacía, ciudadanía, empresariado, personal...

Ikasleak, aholkulariak, zuzendariak, lizentziadunak, abokatuak, herritarrak, hiritarrak enpresa-
riak, langileak...

Hauxe dugu Euskaltzaindiak (73. araua: *-go atzizkia eta izen multzokariak*) horren inguruan dakarrena:

1. Euskaraz askotan ez dago izen multzokariaren beharrik, nahikoa da plurala erabiltzea: *ikastetxe honetako irakasle eta ikasleak, herri bateko biztanleak, hizkuntza bateko hiztunak, etab.*
2. Hala ere, izen multzokaria beharrezkoa denean, *-eria* atzizkia erabil bedi: *langileria, gazteria, biztanleria edo bezeria.*
3. *-go* atzizkia erabil bedi:
 - ofizioa, lanbidea adierazteko: *artzaingoa, zurgingoa, etab.*
 - tasuna adierazteko: *euskaldungoa, ahaidegoa, etab.*

2. Beharrezkoa denean, zehaztu:

Emakumeak eta gizonak, emakume eta gizon langileak; ordezkariak, emakumeak zein gizonak.

3. Ez erabili premiazkoak ez diren estrategiak:

Gaztelaniaz maskulino orokortzailea saihesteko, maiz, «persona», «personal», «población»...
erabiltzen direnez, euskaraz ere hala egiten dugu askotan, baina ez da egokia.

Personal sanitario ~~personal sanitarioa~~ sanitarioak

4. Bikote-izenak erabili:

Zinegotzi jaun-andreak:

Alkate jaun/andre agurgarria:

Zinegotzi jauna/andrea:

Jauna/Andrea:

Alkate jaun/andre hori:

Jaun/Andre hori:

ADIBIDE PRAKTIKO BATZUK

EZ DA EGOKIA EDO INKLUSIBOA	EGOKIAGOA ETA INKLUSIBOAGOA
Industriako langileentzat NBE egokitua egongo da zenbait zeregin burutzeko.	Industriako langileentzat, emakumeentzat zein gizonentzat, NBE egokitua egongo da zenbait zeregin burutzeko.
Zer-nolako eragina du estresak langileongan?	Zer-nolako eragina du estresak langileongan, gizonengan zein emakumeengan?
Zer-nolako drogak kontsumitzen dituzte ostalaritzako langileek?	Zer-nolako drogak kontsumitzen dituzte ostalaritzako langileek, gizonek zein emakumeek?

KALKO DESEGOKIAK

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ DESEGOKIA	EUSKARAZ EGOKIA
Personal técnico	Pertsonal teknikoa	Teknikariak
Personal administrativo	Pertsonal administratiboa	Administrariak
Personal sanitario	Pertsonal sanitarioa	Sanitarioak
Personal facultativo de Osakidetza	Osakidetza pertsonal fakultatiboa	Osakidetza fakultatiboak

GAZTELANIAZ	EUSKARAZ DESEGOKIA	EUSKARAZ EGOKIA
Población fumadora	Populazio erretzailea	Erretzaileak
Mejorar la prevención y protección de la seguridad y salud laboral de todas las personas	Hobetu pertsona guztien laneko segurtasunaren eta osasunaren prebentzioa eta babesa	Hobetu guztien laneko segurtasunaren eta osasunaren prebentzioa eta babesa.
Algunas personas	Pertsona batzuk	Batzuk
El resto de las personas	Gainontzeko pertsonak	Gainontzekoak
Cada persona	Pertsona bakoitza	Bakoitza
Todas las personas que reciban las subvenciones	Dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona guztiak	Dirulaguntzak jasoko dituzten guztiak
Personas representantes	Pertsona ordezkariak	Ordezkariek
Personas usuarias	Pertsona erabiltzaileak	Erabiltzaileak
Persona conductora	Gidatzen duen pertsona	Gidaria
Asesoría (asesores y asesoras esateko erabiltzen dugunean)	Aholkularitza	Aholkulariak
Inspectores de trabajo (inspectoras e inspectores esateko erabiltzen dugunean)	Lan-ikuskaritza	Lan-ikuskatzaileak



HIZKUNTZAREN EDUKIARI ETA IRUDIEN ERABILERARI BURUZKO JARRAIBIDEAK

1. Egin emakumeen eta gizonen tratamendu simetrikoa/baliokidea: izen-deiturak erabiliko badira, hala izan dadila emakumeen zein gizonen kasuan.
2. Adjektibo mota bera erabiltzea emakumeak eta gizonak deskribatzeko eta balio, ahalmen eta gaitasun baliokideak nabarmentzeko.
3. Femeninoa mespretxuzko gisa ez erabiltzea: «No seas nenaza» / «Ez izan alua».
4. Berariaz aipatu emakumeentzat eta gizonentzat espezifikoak/desberdinak diren prebentzio-neurriak:

PAUTAS SOBRE CONTENIDO DEL LENGUAJE Y USO DE LAS IMÁGENES

1. Haz un tratamiento simétrico/equivalente de mujeres y hombres: si se va a utilizar nombre y apellido, que se les nombre así tanto a mujeres como a hombres.
2. Utilizar el mismo tipo de adjetivos para describir a mujeres y hombres y destacar valores, aptitudes y capacidades equivalentes.
3. No usar el femenino como despectivo: «No seas nenaza» / «Ez izan alua».
4. Menciona expresamente las medidas preventivas que sean específicas/diferentes para mujeres y para hombres:

Piezak eskuz kargatu, garraiatu eta deskargatu behar direnean, pisua ez da 25 kg-tik gorakoa izango langile bakoitzeko, eta bitarteko osagarri egokiak erabiliko dira.	Piezak eskuz kargatu, garraiatu eta deskargatu behar direnean, pisua ez da 25 kg-tik gorakoa izango gizonetzkoen kasuan edo 15 kg-tik gorakoa emakumezkoen ² kasuan, eta bitarteko osagarri egokiak erabiliko dira.	Cuando las operaciones de carga, transporte y descarga de piezas se tengan que realizar de manera manual, se repartirá el peso no superando 25 kg por trabajador y se utilizarán los medios auxiliares apropiados.	Cuando las operaciones de carga, transporte y descarga de piezas se tengan que realizar de manera manual, se repartirá el peso no superando 25 kg por trabajador o de 15 kg por trabajadora ³ y se utilizarán los medios auxiliares apropiados.
--	--	--	--

5. Aipatu, testuan edo irudietan, maskulini-zatutako lan-inguruneetako emakumeak eta zainketa-inguruneetako gizonak, ikusarazteko eta ingurune horietan parte har dezaten sustatzeko.

6. Erabili gure inguruko emakumeen eta gizonen errealtatea eta aniztasuna islatzen duten irudiak eta nahitaez edertasunaren kanon estandarretara egokitzen ez direnak.

5. Haz referencia, en el texto o en las imágenes, a mujeres en entornos laborales masculinizados y a hombres en entornos de cuidados para facilitar su visibilización y promover su participación en dichos entornos.

6. Utiliza imágenes de mujeres y hombres que reflejen la realidad y la diversidad de las personas de nuestro entorno y que no se ajusten necesariamente a los cánones estándar de la belleza.

² Kontua ez da soilik emakumeak aipatzea, baizik eta emakumeekin eta gizonekin hartu beharreko prebentzio-neurria desberdina izatea, apirilaren 14ko 487/1997 Errege Dekretuan jasotzen denaren arabera (1997ko azaroaren 23ko BOE): «Oro har, ez gaingitzea gomendatzen den gehieneko pisua (manipulatzeko baldintza egokienetan) 25kg-koa da. Baldin eta eraginpean daudenak emakumeak, gazteak edo adinekoak badira, eta/edo herritar gehienak babestu nahi badira, ez lirateke 15kg-ko baino karga handiagoak erabili behar. Horrek esan nahi du erreferentziako 25kg horiek murriztu egin behar direla, 0,6ko zuzenketa faktorearekin biderkatuz.»

³ En este caso, no sólo se trata de nombrar a las mujeres, si no que la medida preventiva a adoptar con mujeres u hombres es diferente, según se recoge en el REAL DECRETO 487/1997, de 14 de abril (B.O.E. n.º 97, de 23 de abril): «A modo de indicación general, el peso máximo que se recomienda no sobrepasar (en condiciones ideales de manipulación) es de 25 kg. No obstante, si la población expuesta son mujeres, trabajadores jóvenes o mayores, o si se quiere proteger a la mayoría de la población, no se deberían manejar cargas superiores a 15 kg. (Esto supone reducir los 25 kg de referencia multiplicando por un factor de corrección de 0,6).»



GIDALIBURU INTERESGARRIAK GUÍAS DE INTERÉS⁴

- Emakundek 1988an argitaratutako *Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago*
- Emakunde, *Euskararen erabilera ez sexista*. Egilea: Amelia Barquin
- UPV/EHUn euskararen eta irudien erabilera ez-sexistarako gida. Egilea: Marije Apodaka Ostaikoetxea
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren *Hizkuntzaren erabilera ez sexistarako jarraibideak*
- Vitoria-Gasteizko Udalaren Berdintasunerako Zerbitzuak egindako *Instrukzioa: Generoa eta euskararen erabilera egokia*
- STEILAS sindikatuaren *Komunikazio Inklusiborako Gida*
- UPV/EHUn *Euskararen Erabilera Inklusiboa*. Egilea: June Fernandez

⁴ Oinarri gisa erabili dira Osalanerako jarraibideak egiteko.

Se han utilizado como base para la elaboración de las instrucciones para Osalan.

2023ko urrian eguneratua
Actualizado a octubre de 2023